

SERANTES KULTUR ARETOA AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN SAIOAREN AKTA

2018ko IRAILAREN 25eko SAIOA

Santurtziko udaletxearen batzorde aretoan arestian aipatutako eguneko hamaikak eta laurden direnean, Autonomiadun Erakundearen Artezkaritza Kontseiluak ohiko bileran egin du, Presidente jaunak alde zuzenetik deituta. Bileran hurrengo hauek hartu dute parte:

Kontseiluburua: Danel Bringas Egilior jn.

Bertaratutako bokalak:

Itsazain Ortolatxipi Ibáñez jn., Eusko Abertzaleak Udal Taldea

Cristina Senarriaga Rojo and., Eusko Abertzaleak Udal Taldea

Ivan López Arenas jn., Eusko Abertzaleak Udal Taldea

Endika Garcia Saez jn., Bildu Udal Taldea

Pedro Miguel Lucena Balda jn., Euskal Sozialistak Udal Taldea

Luis Angel Urdiales Villanueva jn., Alderdi Popularra Udal Taldea

Jonatan Sanchez Fernandez jn., Atxiki gabeko zinegotzia

Komunikazio arduraduna: Margarita Olabarrieta Sobera and.

Programazio teknikaria: Natalia Garate Andrade and.

Kontu hartzailea: José Miguel Paredes Cisneros jn.

Idazkari eskuordetua: José Fernando García Pañeda jn.

Kontseiluburu jaunak bilerari hasiera eman dio, eta deialdiaren zerrendako gaiak jorrotzen hasi dira, baina lehenago laugarren puntua jorrotuko dela adierazi du programazio teknikariak hirugarren puntua jorrotzeko astia izan dezan.

1. 2018ko UZTAILAREN 24ko OHIKO SAIOAREN AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

2018ko uztailaren 24ko ohiko saioaren akta alde zuzenetik igorri denez, ez da une horretan irakurri.

Ez denez horrekin lotutako beste parte hartzerik izan, Kontseiluburu jaunak erabakiaren bozketa egin du.

EAJ/PNV, Alderdi Sozialista eta Popularreko kideek aldeko botoa eman dute, EH Bildu eta atxiki gabeko zinegotziak, berriz, abstentzioa agertu dute. Horrela bada, Artezkaritza Kontseiluko kideek erabaki dute

2018ko uztailaren 24ko ohiko saioaren akta onartzea.

2. 2018ko UZTAILAREN 31ra ARTEKO AURREKONTU-BETETZEAREN EGOERAREN BERRI EMATEA

Kontseiluburu jaunak uztailera arteko, berau barne, aurrekontuaren likidazioaren berri eman du, Artezkaritza Kontseiluko kideei aldez aurretik helarazitako dokumentazioarekin bat etorriz.

Gai honetan parte-hartzaileek ez dutenez beste ezer esan, onartutzat eman da.

3. KARMENGO JAIETAKO OROITZA TXOSTENA

Presidente jaunak programazio-teknikariari eman dio hitza aurreko Karmengo Jaiei buruzko daturik garrantzitsuenen berri eman dezan.

Kideek parte hartu ondoren, Artezkaritza Kontseiluak gaiaren jakinaren gainean dago.

4. AUTONOMIADUN ERAKUNDEARI BURUZKO INFORMAZIOA

Kontseiluburu jaunak Autonomiadun Erakundearen jardueri buruzko zenbait konturen berri eman du.

5. GALDE ESKEAK

Sánchez Fernández jaunak kexa azaldu du Sardinera Eguna ospatzeko data dela eta. Bestalde, hurrengo proposamen hauek egin ditu: Jorge Javier Vázquezen antzerki-lanaren kontratazioa egitea; ordenagailu gehiago erostea Casa Torre jauregiko lokalak lagatzen direnean erabil daitezten eta SKAn obrak egiteko inbertsioa egitea, beheko aldea oso egoera eskasean dago eta.

Lucena Balda jaunak Txarteldegi, Eserleku, Atezaintza eta Zine Erakusketaren kontratu-pleguez galdetu du.

Presidente jaunak erantzun eman die egindako galderei.

Saioaren grabazio osoa honako esteka honetan dago:
<https://owncloud.santurtzi.eus/index.php/s/Fyjp04fucRytgug>

Jorrazeko gai gehiagorik egon ez denez, Batzordeburu jaunak bilera amaitutzat eman du akta honen hasieran adierazi den egunean hamabiak hamar gutxi direnean. Eta nik, organo honen Idazkari Eskuorde naizen honek hau guztiau ziurtatu egiten dut.